



euskarabildua  
AUKERA BERRIAK SAREAN

## Curriculum

Iraitz Agirre

Jendarte eta Kultur Antropologian lizentziatua da Granadako Unibertsitatean. Jendarte gaiek mugituta, eremu horretan eginak ditu bi gradu ondoko: Master of Arts in Euroculture nazioarteko masterra Deustuko Unibertsitatean eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Masterra Euskal Herriko Unibertsitatean.

Euskaingintzatik sortutako hainbat elkartetan lan egin du, besteak beste, Arrasate Euskaldun Dezagun (2007) eta GaraiON egitasmoan (2008).

2010an Debagoiena eskualdeko Bagara Herrigintzan kooperatibako kide bezala, egitasmo ugarian parte hartu zuen, prozesu komunitarioak dinamizatu eta autoeraketaren ideiatik proiektu eraldatzaileak sustatzeko teknikari lanetan. Huhezi fakultateko Lanki ikertegian aritu zen (Mondragon Unibertsitatea) hiru urtez, proiektuak idazten eta gizarte gaiei lotutako bi irakasgai ematen.

2014an hasi zen ARGIAN eta gaur egun bertako komunitate arduraduna da. Besteak beste, Arrasateko kultur eragile ugarian parte hartzen du eta mugimendu feministako kidea da.